



**1/2018 JARRAIBIDEA, OTSAILAREN 15EKOA, OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO ZUZENDARI NAGUSIARENA, ENTE PUBLIKOKO LAN-KONTRATUDUN LANGILEEK 2015EKO ANTZINATASUNAGATIK EGUN GEHIAGO HARTZEARI BURUZKOA**

**I.- Xedea.-**

Jarraibide honek hau du xede: irizpideak zehaztea horien bidez betearazi dadin Auzitegi Goreneko Gizarte arloko salak emandako 1064/2017 epaia, Euskadiko Justiziako Auzitegi Nagusiko Gizarte arloko salak 2016ko maiatzaren 31n (7/2016 autoetan) emandako epaiaren kontra jarritako kasazio-errekurtsoan.

**II.- Aplikazio-eremua.-**

Errekurritu den epaiak Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko lan-kontratudun langileei norbere eginkizunetarako baimena hartzeko eskubidea aitortu zien, barne sartuta kasuan kasuko langileari antzinatasunagatik dagozkion norberaren eginkizunetako baimen-egun osagarriak, "canoso" deritzenak, 2015etik aurrera betetako hirurtekoengatik dagozkienak, urte horretan, eragindako langile horiek 20/2012 LEDak eten egin zuen aurreko sistemara egokituz eta benetan itzuliz.

**III.- Epaia betearazteko eskumena duen organoa.-**

Auzitegi Goreneko Gizarte arloko Salak emandako epaia betearazteko eskumena duen organoa hauxe izango da: epaiak eragiten dion langileak unean destinoa duen erakundeko Pertsonaleko Zuzendaritza.

Zerbitzu aktiboan baja emanda dauden lan-kontratudun langileen kasuan (erretiroa hartzeagatik edo eszedentzia, heriotza, zerbitzu bereziak, beste Herri Administrazio batera lekualdatzea eta abarreatatik), bajaren unera arte langileak zerbitzu ematen zuen zerbitzu-erakundeko Pertsonaleko Zuzendaritza izango da organo eskuduna.

**IV.- Zerbitzu aktiboan dauden langileak.-**

Pertsonaleko Zuzendaritzek epaiaren erabakia betearazteko banan-banako ebazpenak bidaliko dituzte, Jarraibide honi erantsitako ereduaren arabera.





Ebazpen bakoitzean adieraziko da onartzen diren eta, beraz, hartzekoak diren egun osagarrien kopurua, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren 48. artikulua 2. atalean ezarritakoaren arabera, bere garaian Aurrekontuen egonkortasuna bermatzeko eta lehiakortasuna sustatzeko neurrien 20/2012 Errege Lege Dekretuak (uztailaren 13koa) ezarritako aldaketaren aurretik jasota zegoen eran:

*"[...] seigarren hiru tekoa betetzean, bi baimen-egun gehiago hartzeko aukera. Eta, zortzigarrenetik aurrera betetzen den hiru teko bakoitzeko, beste egun bat."*

Esandako ebazpen horren berri emango zaio interesdunari, bertan adierazita zer baldintzatan eta zer epetan har ditzakeen onartutako baimen-egunak, Jarraibide honek adierazitakoari jarraiki.

#### **V.- Antzinasunagatik baimen-egun gehiago hartzeko irizpideak.-**

Irizpide orokorraren arabera, langile bakoitzak dagozkion egunak hartu ahal izango ditu.

Nolanahi ere, interesdunek aukera izango dute dagozkien egunen erdia eskatzeko eta beste erdiarengatik abonua eskatzeko, 2015eko egunaren balioarekin, bat etorrita VII. Atalean aurreikusitako kalkulu-formularekin. Egunen kopurua bakoitia izanez gero, aukera izango dute langileek geratzen den egun hori hartzeko zein horren abonua eskatzeko.

Antzinasunagatik baimen-egun osagarri horiek egun oso bezala hartuko dira; hau da, hartzen dituen langileak duen erreferentziazko lanaldiaren iraupena izango dute, izan ere, hala zehaztuta dator 2015 eta 2016 urteetarako Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioako langile funtzionario, estatutupeko eta lan-kontratudunen lanaldia urte horietarako ezarri zuten bi Dekretu hauetan: otsailaren 17ko 17/2015 Dekretua (2.4 atalean, antzinasunagatik norberak hartzeko egunei buruzkoan), eta otsailaren 2ko 12/2016 Dekretua.

#### **VI.- Antzinasunagatik baimen-egun gehiago hartzeko epea.-**

Egun horiek hartzeko gehieneko epea zortzi (8) hilabetekoa izango da, enplegatuari dagokion epaia betearazteko ebazpena jakinarazten den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita.

## VII.- Zerbitzu aktiboan baja hartuta dauden langileak.-

Zerbitzu aktiboan baja emanda dauden langileen kasuan (erretiroa hartzeagatik edo eszedentzia, heriotza, zerbitzu bereziak, beste Herri Administrazio batera lekualdatzea eta abarreatatik), ezinezkoa da Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko lan-kontratudunei antzinasunagatik baimen-egun gehiago hartzeko eskubidea onartzen dien epaia betearaztea; horrela jardun beharko da, beraz: hartu beharreko egunak hartu beharrean, horientatik dagozkien ordainsarien abonua egingo zaie, formula honen arabera:

2015eko ekitaldiko urteko ordainsari gordina <sup>(\*)</sup>2015eko antzinasunagatik X baimen-egun osagarri

365

<sup>(\*)</sup> Ordainsari finko eta aldizkakoak

Zerbitzu aktiboan baja hartuta dauden langileen kasuan, betearazi beharreko ebazpenean jasota utziko da egoera horretan dagoen langile bakoitzari abonatu beharreko zenbatekoa, onartuta dituen antzinasunagatik baimen-egun osagarriei dagokiena, Jarraibide honi erantsitako ereduaren arabera.

Ebazpenaren berri emango zaie interesdunei, edo haiek hilez gero, beren eskubidedunei, hala eskatu badute.

## VIII.- Eragin-data.-

Jarraibide honek, sinatzen den egunaren biharamunetik izango du eragina.

Vitoria-Gasteizen, 2018ko otsailaren 15ean.



Iz.: M<sup>a</sup>. JESÚS MÚGICA ANDUAGA  
ZUZENDARI NAGUSIA



**2018KO AREN (E)(A)KO EBAZPENA, ZERBITZU ERAKUNDEKO PERTSONALEKO ZUZENDARIARENA; HORREN BIDEZ BETEARAZTEN DA JAUNAREN/ANDREAREN ALDEKO 1064/2017 EPAIA, AUZITEGI GORENEKO GIZARTE ARLOKO SALAK EMANDAKOA, EUSKADIKO JUSTIZIAKO AUZITEGI NAGUSIKO GIZARTE ARLOKO SALAK 2016KO MAIATZAREN 31N 2015EKO ANTZINATASUNAGATIKO BAIMEN-EGUN OSAGARRIEN INGURUAN 7/2016 AUTOETAN EMANDAKO EPAIAREN KONTRA JARRITAKO KASAZIO-ERREKURTSOAN**

Errekurritu den epaiak Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko lan-kontratudun langileei norbere eginkizunetarako baimena hartzeko eskubidea aitortu zien, barne sartuta kasuan kasuko langileari antzinatasunagatik dagozkion norberaren eginkizunetako baimen-egun osagarriak, "canoso" deritzenak, 2015etik aurrera betetako hirurtekoengatik dagozkienak, urte horretan, eragindako langile horiek 20/2012 LEDak eten egin zuen aurreko sistemara egokituz eta benetan itzuliz.

Auzitegi Goreneko Gizarte arloko Salak emandako epaiak berretsi egin zuen Euskadiko Justiziako Auzitegi Nagusiko Gizarte arloko salak emandako epaia, beraz, azken hori epai irmo bihurtu da.

Hori betearaz dadin, Pertsonaleko Zuzendaritza honek

**EBATZI DU:**

**Lehenengoa.-** Onartzea jaunari/andreari 2015eko  
antzinatasunagatik dagozkion XX baimen-egun osagarriak hartzeko eskubidea.

Nolanahi ere, aukera izango du dagozkion egunen erdia eskatzeko eta beste erdiarengatik abonua eskatzeko, 2015eko egunaren balioarekin. Egunen kopurua bakoitia izanez gero, aukera izango du geratzen den egun hori hartzeko zein horren abonua eskatzeko.

**Bigarrena.-** Antzinatasunagatiko baimen-egun osagarri horiek egun oso bezala hartuko dira; hau da, hartzen dituen langileak duen erreferentziazko lanaldiaren iraupena izango dute.

Antzinatasunagatiko baimen-egun osagarriak hartzeko edo, hala dagokionean, abonurako gehieneko epea, sei (6) hilabetekoa izango da, epaia betearazteko argitaratzen den ebazpena jakinarazten den egunaren biharamunetik hasita.



**Osakidetza**

**Hirugarrena.-** Egunak baimendu aurretik, jaunak/andreak Pertsonaleko Zuzendaritza honi jakinarazi beharko dio antzinasunagatik onartu zaizkion baimen-egun osagarriak noiz hartu nahi dituen eta zenbat hartu nahi dituen.

.....(e)n, 2018ko .....aren ....(e)(a)n

Iz.:

2018KO AREN (E)(A)KO EBAZPENA, ZERBITZU ERAKUNDEKO PERTSONALEKO ZUZENDARIARENA; HORREN BIDEZ BETEARAZTEN DA JAUNAREN/ANDREAREN ALDEKO 1064/2017 EPAIA, AUZITEGI GORENEKO GIZARTE ARLOKO SALAK EMANDAKOA, EUSKADIKO JUSTIZIAKO AUZITEGI NAGUSIKO GIZARTE ARLOKO SALAK 2016KO MAIATZAREN 31N 2015EKO ANTZINATASUNAGATIKO BAIMEN-EGUN OSAGARRIEN INGURUAN 7/2016 AUTOETAN EMANDAKO EPAIAREN KONTRA JARRITAKO KASAZIO-ERREKURTSOAN

**Lehenengoa.-** Errekurritu den epaiak Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko lan-kontratudun langileei norbere eginkizunetarako baimena hartzeko eskubidea aitortu zien, barne sartuta kasuan kasuko langileari antzinatasunagatik dagozkion norberaren eginkizunetako baimen-egun osagarriak, “canoso” deritzenak, 2015 aurrera betetako hirurtekoengatik dagozkienak, eragindako langile horiek 20/2012 LEDak eten egin zuen aurreko sistemara egokituz eta benetan itzuliz.

Auzitegi Goreneko Gizarte arloko Salak emandako epaiak berretsi egin zuen Euskadiko Justiziako Auzitegi Nagusiko Gizarte arloko salak emandako epaia, beraz, azken hori epai irmo bihurtu da.

**Bigarrena.-** jauna/andrea baja emanda dago zerbitzu aktiboan, beraz, ezinezkoa da antzinatasunagatik baimen-egun gehiago hartzeko eskubidea onartzen dion epaia betearaztea; horrela jardun beharko da: hartu beharreko egunak hartu beharrean, horiengatik dagozkion ordainsarien abonua egingo zaio, formula honen arabera:

2015eko ekitaldiko urteko ordainsari gordina <sup>(\*)</sup>2015eko antzinatasunagatiko X baimen-egun osagarri

365

(\*) *Ordainsari finko eta aldizkakoak*

Hori betearaz dadin, Pertsonaleko Zuzendaritza honek

#### **EBATZI DU:**

**Lehenengoa.-** Goiburuan aipatutako epaia betearazteko agintzea eta jaunari/andreak onartzea baimen-egun osagarri hartzeko eskubidea, antzinatasunagatik, 2015ean betetako hirurtekoengatik.

**Bigarrena.-** Ezinezkoa izanik baimen-egunak hartzeko eskubidea betearaztea, aurretik adierazitako arrazoiengatik, onartutako antzinatasunagatiko baimen-egun osagarriengatik euroko zenbatekoa ordaintzeko agintzea.



Soldata kontzeptu gisa zordundutako zenbatekoei laneko irabaziei dagozkien atxikipenak egingo zaizkie.

Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

.....(e)n, 2018ko .....aren ....(e)(a)n

Iz.: